

Zuhaitza  
euskaraz elkarfeak  
musika... deba

# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 166. alea - 2012ko abuztua



Herriko jaietan  
murgiltzeko prest



**SUKIA**  
Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



**ASKETA, S.L.**  
ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

**OFICINAS Y EXPOSICION:**  
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

**ALMACÉN:**  
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



**K21**  
KALITATEA  
Enpresa Fagabada Nº 2 / 05 / 049  
NIVEL 2



**ABEL**  
Kristaldegia

Mota guztietako kristalak  
Lan kristalarasak

Ibaiondo, 2 • 48700 ONDARROA (Bizkaia)  
Tel. 946 833 269 • Fax 946 134 291 • E-mail: abel-kristal@euskalnet.net



**ARKATZA**  
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA



**ISABEL FRUTADENDA**

Sokagin Kalea, 2 behea - 20820 DEBA  
943 029 186



**AZKUNE**  
FRUTA PRODUKZIOA ETA ZERBITZUA  
1975etik zuekin!



**URDAITEGIA  
AITTOLA  
HARATEGIA**

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA



**LENTZERIA**  
**Azoka**  
**MERTZERIA**

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



**kutxa**  
zugandik zugana



**haizea**  
estetika


Tlf. 943 029 607  
Iturkale 22, 1 eskubia  
sarrera Zesterokua plazatik



**BURU - ZURI**  
Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23  
Tel.: 943 191 034  
20820 DEBA



**Kafetegia**

Foruen Plaza  
Tel.: 943 191 035  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



**Calbeton**  
JATETXEA

**Agustín Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platerra  
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



**L.A.**  
**LARRAMENDI ANAIK, S.L.**

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959  
Mobila: 670 411 786  
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba

Telefona: 943 19 13 83  
Aldizkariaren e-maila:  
[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)  
Elkartearen e-maila:  
[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

**Argitaratzailea:**  
Zuhatza Euskara Elkarte

**Erredakzio taldea:**  
Goizane Aizpurua,  
Mikel Aizpurua,  
Koldo Aperribai,  
Izaro Aulestiarte,  
Nagore Dorronsoro,  
Lukax Dorronsoro,  
Xabier Laka,  
Migel M.Lekube (Lutxo)  
Ina Oiartzabal eta  
Eider Zulaika

**Azaleko eta jaietako irudiak:**

Joxe Ramon Larrañaga

**Publizitatea:**

Joseba Escudero eta  
Juan Mari Gurrutxaga  
Tlfnoa.: 943 19 13 83  
943 19 26 94

**Logotipoaren diseinua:**

Iñaki Elosua

**Banaketa arduraduna:**

Juanma Oiartzabal

**Inprimategia:**

Euskalinpri

**Tirada:**

1.400 ale

**Lege gordailua:**

SS-246-2009

**ISSN** 2171-7656

**OHARRA:**

*Berriketan-ek* ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTU-NAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

**ARGITARATZAILEAK**



**LAGUNTZAILEAK**




Debako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia



Ander Salegi



**EGIN ZAITEZ BAZKIDE ZUHATZAN**



260 bazkide gara dagoeneko Zuhatzan; eskerrik asko denei.



943 19 13 83

40.000 € inguruko aurrekontua du Zuhatzak 2012. urterako.


**MEMORIA HISTORIKOA.** Fidel Emparanza Zabala, Debako urpekari errepublikarra. **05.**

**ALBISTEAK.** Mainer Zubikarai, alkate karguan; [www.baserrikoa.com](http://www.baserrikoa.com) webgunea, Foru Aldundiak Praileaitzen babes handitzeko eskatu dio Jaurlaritzari, Debalai elkartearen ekimenak... **06-09.**

**LITERATUR LANAK.** Zuhatzak antolatutako lehiaketan saritutako lanak... **11-14.**

**SAN ROKEAK 2012.** Egitarau osoa. **16-17.**

**ZERBITZUAK.** **18.**



*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: *berriketan@zuhatza.com* edo *koordinatzailea@zuhatza.com*.

## EZ DUGU AULKI HUTSIK NAHI



Abuztuarekin batera, festa eta jai nonahi. Gainean ditugu Kopraixak, San Rokeak eta San Nikolasak ere. Bakoitzak geure gustuen arabera ospatuko ditugu jai hauek: dantza, kanta, joko, lehiaketa, zezen, entzierro eta kontzertu, nahi adina aukera norberak bere gustura eguna antolatzen.

Festa hauetaz gozatzen egon beharko lukete Jokin Urainek, Juan Mari Gabirondok eta Jose Mari Beristainek ere, ezarri zitzaizen kondena aspaldi bete baitute. Baina, Espainiako gobernuak asmatutako lege berezia, "Parot Doktrina" deiturikoa, aplikatu zitzaizen herritar hauei salbuespeneko bizi osorako zigorra ezarri.

Gu jaietan gabiltzan bitartean beraien senide edo lagunak, Jose Antonio Galarragarenak bezalaxe, kilometroak eta kilometroak egin beharko dituzte ordubeteko bisita egin ahal izateko eta adierazi nahi dugu kondena Euskal Herrian betetzea beraien eskubide bat dela.

Gogoratu, bestalde, gaixotasun larriak izanik hamalau euskal preso politiko daudela espetxean, eta jakin badakigu preso hauek legez eta eskubidez etxean behar luketela.

Ereallitate honen aurrean ezin gara besoak gurutzatuta geratu, jai egun bakoitzean, parranda bakoitzean, ospakizun bakoitzean, brindis bakoitzean gogoan izango ditugu. Abuztuaren 14an, adibidez, arratsaldeko 17:15ean Foruen Plazan elkartuko gara brindisa egiteko, eta jarraian kalejira egingo dugu jai ei hasiera ematen dien txupinazora.

Euskal presoen eskubideen defentsan **konponbide-aren pilotari** paseak emanez espetxe politika honekin amaitzea lortu arte, jokoan jarraituko dugu.

Ondo igaro festak eta **eman pilotari** horretarako aukera duzuen guztietan.

*Debako Herrira bilgunea*

## BERRIKETAN-EN HURRENGO ALEA, URRIAN!!

Esku artean daukazuen aldizkariaren ale honekin agurtzen du Zuhatza Euskara Elkartea ikasturtea. Abuztuko oporrak direla eta, irailean ez dela *Berriketan*-ik kaleratuko gogorazi nahi dizuegu. Hurrengo alea urrian plazaratuko dugu. Ordura arte agurtzen zaituztegu, beraz!

Bide batez, lerro hauen bitartez, herriko festetan

zein oporraldietan ondo pasatzea opa dizuegu. Eta, badakizue, irailtik aurrera izango dugu berriz ere elkarren berri, besteak beste, hitzordua jarrita baitugu Euskal Jaian. Ondo izan bitartean!

*Zuhatza Euskara Elkartea*

## Fidel Emparanza Zabala, Debako urpekari errepublikarra

Espainiako Gerra Zibila zela eta, errepublikar urpekarietan (submarino) hainbat itsas-ofizial euskaldun aritu ziren. Horietako bat Fidel Emparanza Zabala debarra izan zen, eta haren figura nabarmendu nahiko genuke oraingo honetan.


Errepublikarren urpekaririk aktiboena zen "C-6" an egon zen. Urpekari horretan "Euzkadiko Itsas armada" ko hainbat kide ere aritu ziren.

F. Emparanza debarra 1936. urteko abuztuan bertako ofizial gisa itsasoratu zen. 1937. urteko urtarrilean komandante bezala aritu zen, eta maiatzetik urrira arte Kantauri itsasoan jardun zuen "C-6" urpekaria hondoratu zen arte. Urte horretan korbeta-kapitain izatera iritsi zen; eta "Libertad" itsasontziko ofizial gisa ere arituko zen denbora batean.

1938. urtean, Bordelen zegoela, "C-4" urpekariko komandanteorde izendatu zuten. Urte horretako apirilean, Cartagenako itsasportura iritsi zen. Aurrerantzean, "C-1" eko komandanteorde bezala, mediterraniar itsasoa kontrolatzeko ardura izan zuen. Urriaren 8 eta 9ko gauean nazionalak Bartzelonako hirian eragindako bonbardaketan hondoratu zen.



Juan Mari Gurrutxaga



"C-6" urpekaria Gijonen.



(Irudien iturriak: "Buques de la Guerra Civil Española-Submarinos" eta Cartagenako Ontzi Museo).

## Markiegiren fusilamenduaren 75. urteurrena



Polentzi Markiegi (erdian), lagun aberkideekin 1931ko ekainean. (Iturria: "Egun Zaharretako Deba" liburua).

Urriaren lehenengo hamabostaldian ospatuko diren ekitaldien baitan, argazki erakusketa bat antolatzeko lanean ari gara. Horretarako erretratu zaharrak behar ditugu, XX. mendeko lehenengo hiru hamarkadetakoa; mendea hasi eta gerra bitarteko garaioak.

Gure ekimenaren ardatza Markiegiren izana eta izena zabaltzea bada ere, sasoi hartako edozein erretratuk izango luke tokia gure erakusketan. Erretratuak eskaneatu egingo genituzke. Zuen etxean horrelako argazkiren bat izanez gero, harremanak errazteko irailaren 1ean eta 8an udaletxeko arkupetan egongo ginateteke (11:00etatik 12:00etara). Erretratuekin batera sasoi hartako kontu zaharrak ere entzungo genituzke gustura. Denon artean ganorazko ospakizun batzuk antolatzeko guztion laguntza beharrezkoa da.

Markiegiren fusilamenduaren 75. urtemugako lantaldea

**urlo**  
SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

**API**  
Nº. 379

Higiezin Zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komunitadaren administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo  
Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
urlo@urlo.es

**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)

## Silverio Urkiriren lekukoa hartuta, alkate karguan jardungo du Maider Zubikaraik

Silverio Urkiri Beitia alkateak dimisioa aurkeztu zuen uztailearen erdialdean Debako Udalean. Urkirik azken hilabeteak bajan eman ditu medikuaren aginduz, eta uztailean kargua uztea erabaki zuen arrazoi pertsonalak argudiatuta.

Hartara, uztailearen 19an egindako udalbatza berezian, Debako Alternatibak Maider Zubikaraik alkateordea aurkeztu zuen alkatezarako. Aldeko bederatzi botorekin eta bi abstentziorekin izendatu zuten alkate. Historian zehar Debako alkatez arituko den lehenbiziko emakumezkoa da, beraz, Zubikaraik.

Orain artean, Hirigintza eta Ingurumen-Turismo batzordeen arduraduna izan da. Dena den, urte hasieratik, Silveriok bajan egin dituen hilabeteetan ere, Maiderrri egokitu zaio haren funtzioak betetzea.

Alternatiba Eraikitzen-ek bost zinegotzi lortu zituen udal hauteskundeetan; EAJK hiru, EAK eta Aralarrek bina eta Itziar Herria Sortzen-ek, bakarra. Aurreikuspenen arabera, Silveriok utzitako zinegotzi kargua ordezkatzeko ere beste zinegotzi bat izendatu beharko du Alternatibak.

### Elkarlana eta herritarren parte-hartzea bultzatu nahian

Alkate kargua hartu ostean, Maider Zubikaraik berak gogorazki zuen bere hautaketa ezbehar baten ondorio izan dela, "denok dakigun bezala Silberren osasun egoerak ekarri baikaitu gaurko urrats honetara". Hori hala izanda, bai berak, baita Udalak ere, lehenbailehen osatzea opa zioten, orain arte herriaren alde egin duen lan guztiarengatik eskerrak helaraziz.

Alkate berriak udalbatzara gerturatutako aurrean azaldu zuenez, hauteskundeetan aurkeztutako herri programa gauzatzen joateko asmoa dute etorkizunean ere, "noski, orain



arte bezala, elkarlanean eta herritar guztien parte-hartzea bultzatuz". Era berean, gainontzeko alderdiei ere elkarlanerako deia egin zien: "Alderdi guztioi azaldu nahi dizuet, orain arte bezala, gure arteko komunikazioa eta elkarlana bultzatzeko ditugun tresna guztiak erabiliko ditugula; aurrera begira, hobetzeko asmoz, baita berriak sortu ere".

Amaitzeko, esker onez agertu eta Udalaren atea "herritar guztiei irekita" daudela gogoratu zuen.

## Badugu 2012ko Euskal Jaia ilustratzeko kartela!

Datorren irailaren 29an ospatuko dugu garai berriko XV. Euskal Jaia. Urruti samar ikusten bada ere, Zuhatzta Euskara Elkartek abian ditu dagoeneko antolaketa lanak. Eta horren adibide da, besteak beste, uztailean zehar antolatutako Euskal Jairako kartel lehiaketa.

Aurtengo edizioan bost lan aurkeztu dira. Lan guztiak uztailearen 20an egon ziren ikusgai plaza zaharrean, eta herritarrek bozka bidez hautatu zuten kartel irabazlea. Bozketan 366 lagunek hartu zuten parte, eta 163 boto jasoaz irabazi du lehia Willy Berasaluzek. Bigarren postuan Idoia Bakedano gelditu da, 92 bozkarekin; eta, hirugarren saria Miren Berasaluzek lortu du (42 botorekin).

Bestetik, aipamen berezia egin nahiko genieke lehian aritu diren Aritz Loiolari eta Juanma Oiertzabali ere.

Eskerrik asko bozketan parte hartu duzuen guztioi eta, nola ez, lanak aurkeztu dituzuenoi!



Kartel lehiaketako irabazleak: Willy Berasaluze (lehenengo saria), Idoia Bakedano (bigarrena) eta Miren Berasaluze (hirugarrena).

## “www.baserrikoa.com” webgunea: eskualdeko baserritar eta salmenta zuzenaren erakusleihen berria



Debemen elkarteak [www.baserrikoa.com](http://www.baserrikoa.com) webgunea sortu du, eskualdeko baserriko produktuen erakusleihen izateko helburuarekin. Bertan, “baserritarrek era natural batean ekoiztutako kalitatezko produktuak eskaintzen dituzte, eta bezeroek produktu horiengana erraztasun handiagoarekin iristeko informazioa lortu dezakete”.

Debemeneko arduradunek azaldutakoaren arabera, Baserrikoa Debabarrena izeneko egitasmoaren bitartez, baserriko produktuak merkaturatzeko bide zuzenagoak bultzatu nahi dira. Eta horretarako bi ildo jarraitu nahi dituzte: salmenta puntuen egokitzapena eta web orrialdea. “Izan ere, badakigu gaur egungo bizimoduak ez duela bat egiten azoketako ordutegiarekin, eta gainera, gero eta jende gehiagok egiten ditu erosketak internetez”, nabarmendu zuten Debemeneko kideek.

Atari digitalean, gure eskualdean salmenta zuzena egiten ari diren baserritar guztien erreferentzia jaso dute.

Baserritar edo ekoizle bakoitzak bere fitxatxo du, eta bertan berarekin harremanetan jartzeko kontaktuak agertzeaz gain, zer ekoizten duen eta produktu horiek non aurki daitezkeen ere azaltzen da. Gainera, erosketak online egiteko aukera ere eskaintzen da, orrialdean bertan ageri diren loturen bidez.

Horrez gain, azoka eta merkatu guztien inguruko informazioa jaso dute, baita azoketan antolatzen diren tailerren ingurukoa ere. Garaian garaiko produktuen egutegia, errezetak eta, besteak beste, landa auzoetako jaien berri ere ematen du webguneak.

Produktuaren arduradunen ustez, “erosleen parte-hartze zuzenari esker, herriko ekonomia sustatzen eta landa eremu bizi bat mantentzen laguntzen dutela senti dezaten tresna ezin hobea da webgune berria”.

Oraingoz, guztira, 57 baserritarren erreferentziak ageri dira atari digitalean, eta horietako hamahiru Deba eta Itziarko ekoizleei dagozkie.

## Jasangarritasunaren EKOBIRA azoka ibiltaria Deban izan zen

Pasa den uztailaren 21ean, Ekobira azoka ibiltaria Deban izan zen. Jasangarritasunaren azoka da Ekobira eta bere helburua gizarte ingurumen gaitan kontzientziatzea da, baita zerbitzu eta produktu ekologikoagoak kontsumitzeko aukera ematea ere. Azokaren arduradunek azaldu bezala, hain zuzen ere, “bizitza jasangarriagoa izatea posible da. Elikagaiak hautatzea, kontsumo energetikoa gutxitzea eta aisialdi jasangarria izatea gure esku dago”. Ekainean abiatu zen azoka ibiltariaren bigarren edizioa eta, azarora bitarte, Gipuzkoako 11 udalerrri bisitatu ditu.

Eguraldia lagun, Debako azokara hurbildu ziren bisitariak “beste kontsumo era bat posible” dela egiaztatzeak aukera izan zuten. Besteak beste, produktu ekologikoak, artisautea, material birziklatuekin egindako produktuak, energia berriztagarriekin lotutako enpresen erakusmahaiak, ingurumen heziketarekin lotutako tailerrak eta bigarren eskuko produktuak trukatzeko aukera eskaintzen du Ekobirak.



Ander Salegi

## Gipuzkoako Foru Aldundiak Praileaitzen babes handitzeko eskatu dio Eusko Jaurlaritzari



**Gipuzkoako Foru Aldundiak beste behin eskatu dio publikoki Eusko Jaurlaritzari Praileaitzen babes maila handitzeko, gaur egun duena “ez delako nahikoa, inondik ere”. Diputazioak Jaurlaritzaren espedienteari jarritako alegazioetan planteatzen dituen aldaketa nagusiak bi dira, eta horien inguruko azalpenak emateko prentsaurrekoa egin zuen Donostian.**

Ikerne Badiola Gipuzkoako Kultura diputatuak prentsaurrekoa eskaini zuen uztailaren erdialdean Donostian, aldamenean Diputazioko Carlos Olaetxea arkeologoa eta Xabier Peñalver (Praileaitz Ieko indusketa zuzendaria) zituela.

Bertan azaldu zuten bezala, Eusko Jaurlaritzak Praileaitzeko aztarnategia babesteko abian jarritako espedienteari Foru Aldundiak asteotan aurkeztutako alegazioetan bi aldaketa nagusi planteatzen ditu. Lehenengoa, Praileaitz I kobaren inguruko babes perimetroa 65 metrotik 100 metrora handitzea eta babes handiko zona horretan Deba ibaiaren ondoan dagoen mendi magala sartzea, kobaren paisaia kulturala (gelditzen den apurra) mantentzeko. Bigarrena, zona hori Ondare Legearen bidez babestea, eta ez soilik Kosta Legearen bidez, egun gertatzen den bezala.

“Gipuzkoako Foru Aldundiaren erantzukizuna da gipuzkoar guztion ondare dena babestea”, adierazi zuen Ikerne Badiolak. “Praileaitzen eta bere ingurunean aurkikuntza garrantzitsuak egin dira. Horregatik, bizimodu baten aztarnak jasotzen dituen kultur paisaia, orain arte ukitu ez dena, bere osotasunean babestea nahi dugu”, gaineratu zuen.

Ez da Diputazioak espedienteari (Eusko Jaurlaritzak Praileaitz eta haren ingurunea babesteko abian jarritakoari) alegazioak egin dizkion lehen aldia. Jaurlaritzak espediente bat jarri zuen martxan 2010ean Praileaitz eta haren ingurunea babesteko; 65 metroko babes perimetroa adostu zuen, gairontzekoa Kosta Legeak babesten zuela argudiatuta. Foru Aldundiak alegazioak egin zituen orduan, baina Jaurlaritzak espedientea artxibatzea erabaki zuen. Ekainean, espedientea artxibatu zuen egun berean, beste bat jarri zuen abian, “oso antzekoa”, Ikerne Badiolak azaldu zuenez. Eta, hori dela eta, Foru Aldundiak berriz ere alegazioak egin ditu berriki.

Foru Aldundiak egin duen eskaeraren garrantzia areagotu egin da, gainera, Espainiako gobernuak Kosta Legea aldatzeko lege aurreproiektua aztertu baitu asteotan. Besteak beste, aurreproiektu horrek itsasadarretan babes zortasuna 100 metrotik 20ra jaiste aurreikusten du, 2011 urtea baino lehen urbanoak ez ziren lurretan. Praileaitzen kasuan

horrek esan nahi du oraindik ukitu gabe dagoen eta Zeleta enpresaren Sasiolako harrobiak oraindik ustiatu ez duen mendi magala ere babesik gabe geratuko dela.

Kosta Legeak laster izango dituen aldaketek agerian uzten dute Praileaitz eta bere ingurunea babesteko neurriak azkar hartzearen beharra. Eta horregatik, Foru Aldundiak berriz ere eskatu dio Jaurlaritzari espedientea berehala ebazteko eta “ausart” jokatzeko, “ondarea interes ekonomikoen gainetik egon dadin”. Izan ere, EAeko Auzitegi Nagusiak Sasiolako harrobia ustiatzen duen Amenabar taldeko Zeleta SL enpresaren aldeko epaia eman zuen duela hilabete batzuk. Haren arabera, Jaurlaritzak 50 milioi euro inguru ordaindu

beharko lizkioke enpresari, eta, babes eremua handituko balitz, kalte-ordaina proportzio berean handituko litzateke.

Xabier Peñalver Praileaitzeko indusketa zuzendaria “gustura” agertu zen Diputazioak hartu duen jarrerarekin. “Lehen aldia da erakunde batek proposatzen dituen neurriekin erabat ados gatzela Praileaitzen gabiltzan ikerlariok, eta bertako ondarea babesteko sortu diren kultur eta natur mugimenduko kideok. Guk aspaldi eskatu duguna berretsi baino ez dute egiten Aldundiaren alegazioek”. Bestetik, Mutriku Natur Taldeak

ere alegazioak aurkeztuko ditu, babes eremua 500 metrora handitzeko eskatuz.

### Arkeologoak haitzulora itzuliko dira

Praileaitzen hainbat indusketa kanpaina egin ziren segidan 2000. urtetik aurrera, 2009an bertan behera utzi ziren arte. Baina, Peñalverrek jakinarazi zuenez, arkeologoak uda bukatu ostean berriro hasiko dira indusketak egiten.

Indusketak bi fasetan gauzatuko dira, iraileko eta azaroko lehen hamabostaldian. Eta helburua aurreko interbentzioetan erantzunik gabe gelditu diren puntuak aztertu eta Solutrense eta Gravetiense garaiko mailek duten garrantzia zehaztea izango da. Horretarako, besteak beste, Karbono 14aren frogak egingo dira. “Hilabeteko epea laburra da, baina gure azterketekin ahalik eta gehien sakontzen saiatuko gara”, azaldu zuen Peñalverrek.





# Nikole Garate itziartarrak irabazi du I. Balkoi Loredunen lehiaketa



Nikole Garateren balkoi saritua.



Gisatu lehiaketako irabazleak eta epaimahaikideak.

Irudiak: Ander Salgei

Nikole Garate itziartarrak irabazi du Debalai elkarteak uztailean antolatutako balkoi loreduen lehiaketako lehen edizioa. Eta bigarren saria ere Itziarren gelditu da, Patricia Almirallen balkoia saritu dute eta. Epailan lanetan Jartxa loradendako Pedro Burgaña eta Nuevo Diseñoko Rocío Gómez aritu dira.

Nolanahi ere, lehiaketa ez da izan Debalai azkenaldian burutu duen ekimen bakarra. Besteak beste, hilabete hasieran, gaztetxoaren arteko futbol torneo antolatu zuen hondartzan, hiru-garren urtez. Eta uztailearen erdialdean gisatu lehiaketa egin zen Aldats pilotalekuan; guztira ehun bat lagunek parte hartu zuten, giro politean, eta azkenik Dalton koadrila saritu zuen epaimahaiak. Uztaileari amaiera emanez, bestetik, San Inazio egunean Debalai elkartearen kide diren hamar bat dendarik outlet azoka burutu zuten herrian.

## 2010ean sortutako elkarte

Debalai elkartearen Roberto Ramosek gogorarazi bezala, herriko merkataria eta ostalariak biltzen dituen elkartearen 2010. urte hasieran sortu zen, "guztien indarrak batuz sektorearen eragina handitze-ko helburuarekin".

Guztiok elkarrekin arituz, sektorea bera zein herriko bizitza soziala hobetze bidean ekimen gehiago burutu daitezkeela uste du Debalai lehendakariak. Eta izaera horretako elkarte bat egoteak, eta bertan ahalik eta eragile gehienek parte hartzeak,

herriko bizimodua suspertzeko jardura gehiago antolatzea ahalbidetzen duela nabarmendu du. Horren adibide dira, hain juxtu, Debalai berriko antolatutako gisatu lehiaketa, edo balkoi loreduen lehiaketa, outlet azoka, zozketak, moda desfilea, PINa edota iaz ospatutako kafearen hilabetea, besteak beste.

Gainera, halako elkarte bat egoteak erraztu egiten du merkataria eta ostalariak, eta baita administrazioek ere, "bitartekari aproposak" izatea merkataritzari dagozkion gaien inguruan jarduteko ere. "Era berean -gaineratu du Ramosek-, gure ustez oso garrantzitsua da sektorea sozialki eta instituzionalki aitortuta egotea. Norbaitek imajina ditzake, adibidez, komertzio edo ostalaritzarik gabeko kaleak? Kaleetako argiztapenari zein segurtasunari ez al lioke eragingo horrek? Zenbat lagun eta senide geldituko lirateke langabezia? Nork emango liguke gertuko zerbitzu espezializatua? Eta hori guztia, erosketak egitera joateko kutsadurarik sortu gabe, eta, batzuek diotenaren aurka, beste zenbait lekutan eskaintzen diren antzeko salneurriekin, edota baxuagoekin ere bai, gainera. Ziurrenik, herritar xumeak ezingo du askorik egin pairatzen dihardugun makroekonomiari dago-kion krisiaren aurrean; bai, ordea, mikroekonomiari dagokionean. Gure diruak non gastatzen ditugun erabakitzeke askeak gara, gure eguneroko erosketak non egin nahi ditugun hautatu dezakegu; eta hori non hobe bizi garen herrian baino, aberastasuna eta lanpostuak sortuta?".

## Bisita berezia eskainiko da "Arbasoen Deia" egitasmoaren baitan

Debegesa Garapen Agentzia eta Debanatura elkartearen ekimenez, "Arbasoen Deia" bisita programaren helburua eskualdeko herritarrei zein bisitariari Debarreneko historia eta kultur ondarea ezagutzera ematea da, eskualdearen iraganean eta tradizioetan sakonduz.

Bisita programa iragan ekainean jarri zen abian, bertako herritarrei zein kanpotik etorritako bisitariari Debarreneko historian murgiltzeko aukera eskainiz. Abuzturako ez zegoen irteerarik aurreikusita baina, uda sasoiaren bisitarien kopuruak gora egiten duela eta, abuztuaren 18rako bisita gidatu bat antolatu dute.

Hain zuzen ere, Burdinolen

ibilbidea egingo da, gida-interpretatzen baten azalpenek lagunduta. Gainera, prezio murriztua egingo zaie irteeran parte hartzen duten bisitariari. Helduek sei euro ordaindu beharko dituzte; eta 12 urtetik beharagoak dohainik izango da txangoa. Arduradunen esanetan, gainera, haurrek erraz egin ahal izango dute ibilbidea, haien zati espreski prestatutako jolas dibertigarri baten bidez.

### Burdinolen Ibilbidea

Goizeko 10:00etan Mendaroko tren geltokitik abiatuta, Kilimon bailarara abiatuko dira bisitariak eta bertan ibilbide labur eta erraza egingo dute burdinola, karobi eta bide zaharren aztarnak jarraituz. Bailara hori ezagutu ostean,



Mendarotik Elgoibarrera trenaz abiatuko dira, Makina Erremintaren Museoa ezagutzeko.

Informazio gehiago lortzeko edo erreserbak egiteko: 943191172/695783656 zenbakiak, [debanatura@hotmail.com](mailto:debanatura@hotmail.com) helbide elektronikoa edo Debako zein Mutrikuko turismo bulegoak.

## Igon Mantzizidorrek bosgarren postua lortu zuen Goierriko Bi Handiak mendi lasterketan

### Unai Bengoa 13. postuan sailkatu zen Ehunmiliak proban

Pasa den uztailaren 13an jokaturako Goierriko Bi Handiak mendi lasterketan bosgarren postuan gelditu zen Igon Mantzizidor korrikalari debarra. Unai Bengoa itziartarrak, bestetik, Ehunmiliak izeneko proba luzean parte hartu zuen, eta 13. postuan amaitu zuen (168 kilometroko ibilbidea 29 ordu eta 52 minutuan burutu zuen).

Mantzizidorrek berak kronika hau egin digu bere lasterketaz: "Uztailaren 13an, gaueko 23:00etan, irteeran agertu ginen 88 kilometroko ibilbidea egiteko asmotan. Eguraldi petrala izan genuen gauean. Hasieran, Beasaindik Aralarra joan ginen (Txindokiko pikoa igo gabe); Ganbotik Lizarrustira gero. Lizarrustin, indarrak berri eta Etxegaratera abiatu ginen. Eta Etxegaraten arropa aldatu eta Aizkorri gainera; azken zatian egural-

diak hobera egin zuen, eta azken kilometroak bizi-bizi egin nituen, bi postu aurreratuz".

"Prestakuntza egokia eman ez arren, gorputzak ongi erantzun zidan eta erabat gustora bukatu nuen", laburbildu du korrikalariak. Azkenean, bosgarren postuan iritsi zen helmugara. 12 ordu eta 7 minutu behar izan zituen 88 kilometroko ibilbidea burutzeko.

#### Mendi lasterketa "gogorak"

Aipaturako lasterketen arduradunek jakinarazi bezala, "gogorra" hitza erabili zuten korrikalari gehienek aurtengo Ehunmiliak eta Goierriko Bi Handiak mendi lasterketak deskribatzeko garaian. Izan ere, euriak eta hotzak are gehiago zaildu zuten lehendik ere nahikoa gogorra den ibilbidea.

Horren adierazgarri da proba



utzi behar izan zuten parte hartzaileen kopurua ere. Ehunmiliak 112 korrikalari bukatu zuten eta G2H 197 lagunek; denera, 150 lagunek utzi zuten lasterketa. Bukatu zutenen artean, Aitor Leal eta Xabi Adrian izan ziren azkarrenak Ehunmilietan; eta Javi Dominguez gas-teiztarra eta Silvia Trigueros Goierriko Bi Handiak proban.



### Deba-Itziar Xtreme Triatloi Taldeko hiru kide, Zumaia Fysch Trail proban

Uztailaren 22an Zumaia Fysch Trail mendi lasterketa burutu zen eta bertan Deba-Itziar Xtreme Triatloi Taldeko hiru lagunek parte hartu zuten.

Mendi lasterketa horrek 31,2 kilometroko ibilbidea du, eta Zumaia eta Deba arteko itsaslabar ikusgarriak zeharkatzen ditu.

Debako taldekideen artean, Jose Mari Paredes izan zen lehena, ibilbidea 2:59:59ko denboran burututa (114. postua lortu zuen sailkapen orokorrean).

Bestetik, Xabier Ziaranek 3:30:52 eta Alex Gilek 4:18:39 behar izan zuten lasterketa gogor eta polit hori bukatzeko. Zorionak hiruroi!!


## Nesken binakako pala txapelketa herrikoia 2012

Ez dugu, Deban, neska askorik ikusten pala-jokoan. Garai batean, ordea, ohikoa zen hori; ikusi, bestela, nola zegoen Euskal Jolas 1915ean. Sasoi hartako giroa berreskuratu eta pilotarako gogoia suspertu nahian, nesken txapelketa herrikoia antolatu nahi du Euskal Jolas pilota taldeak udazkenerako.

Datorren irail eta urrian jokatu da. Saiok asteazken eta ostiral arratsaldeetan edota larunbat eta igande goizetan burutuko dira (parte hartzaileen ahalmenen arabera).

Antolatzaileek zera nabarmendu dute: "Lagunarteko txapelketa izango da. Palan ibiltzea gustuko dutenak animatzea nahiko genuke. Binaka nahiz banaka eman daiteke izena, bikoterik ez daukanak partaideen artean topatu ahal izango baitu berea. Ez kezkatu mailagatik; lehia bera baino gehiago, ondo pasatzea eta giroa sortzea da helburua. Animatu!".

Izena emateko deitu 671.575.692 (Marilu) edo 663.46.86.98 telefonora (Amaia), abuztuaren 20tik irailaren 2a arte.



Argazkia: Indalecio Ojanguren (Gipuzkoa Kultura).

# Literatur lanak

Malen  
Egaña

## Martaren istorioa

DBHko lehenengo zikloa.  
Idazlan lehiaketan I. saria lortu du (narrazioa)



Hau ez da ohiko istorio bat. Ez da orain dela asko gertatutakoa, ez misteriozkoa eta are gutxiago abenturazkoa. Hau benetan gertatutako istorioa da, Marta, nire lehengusina txikiarena alegia. Bera oso pertsona berezia da. Berak munduko gauzen alde ona ikusten du beti eta bere irribarrearekin alaitzen ditu bidean topatzen dituen guztiak. Baina, badago gauza bat are eta bereziagoa egiten duena: Marta bi urteko neska txiki gorra da eta gorputzeko ezkerreko aldea mugitzea kostatzen zaio. Hau, Martaren istorioa da.

Ez dira oraindik hiru urte pasa Marta mundura etorri zenetik. Ondo gogoratzen dut, egun hartan haize handia egiten zuen; kuriozoso, Marta haizea bezain jostaria baita. Madrileko ospitalean aurkitzen ziren bere gurasoak: ama larrialdietan eta aita kanpoan, bere bigarren alaba berria itxaroten (nire osaba-izebek lehenagotik ere alaba bat izana zuten). Denbora pixka bat igaro eta gero jaio zen, ba, Marta. Medikuek esan zuten: -Neska da, eta osasuntsu dago. Eman iezaiozue umea bere amari, gogoarekin egongo da eta.

Denak oso pozik jarri ginen medikuek Marta ondo jaio zela ziotela jakin genuenean, baina medikuek ez zuten gauza bat kontuan hartu...

Hilabete bat jadanik igarota zen Marta jaio zenetik eta nire osaba-izebak kezkatzen hasiak ziren: ikusten hasiak ziren Martari bere gorputzeko ezkerreko aldea mugitzea kostatzen zitzaioela eta zarata bat entzuterakoan ez zuela erreakzionatzen. Ospitalera joan ziren azkenean eta han Martari proba batzuk egin zizkieten eta, azkenean, jakin zuten zer gertatzen zitzaion:

-Martaren gurasoak al zarete?- galdetu zien medikuak.

-Bai, geu gara.

-Lortuak ditugu analisisen erantzunak eta jakinarazi nahi dizuet zuen alaba gorra dela, hau da, ez duela ezer entzuten.


Nire osaba-izebek ez zekiten zer egin.

-Zorionez, badugu horren kontrako irtenbide bat. Zuen alabari inplante batzuk jarritz gero, entzuteko gai izango litzateke.

Marta urtebetez "audifono" batzuekin ibili zen, hasieran oso txikia baitzen operazioa egiteko. Geroztik, Martak ez ditu entzumen arazo asko izan eta gure familian ahal izan dugun guztia lagundu diegu, zeren Marta gure familiako txikia da eta asko maite dugu.

Baina honetan ez gaude bakarrik, pertsona askok ere beraien laguntza eskaintzen digute beti. Martak ezer gertatuko ez balitz bezala jarraitzen du, beti irribarrez eta jolasean, gure aurpegietan nahitaez poztasun apur bat jarritz, zeren eta oso harrigarria da nola hain pertsona txikiak, laguntza behar duenean, pertsona asko elkartzen dituen.

Aitor  
Gonzalez



## Eskolan aspertu?

DBHko lehenengo zikloa.  
Idazlan lehiaketan 2. saria lortu  
du (poesia)

2013-ko ekainaren 2a,  
goizeko 9:30ak dira  
eta Matematikako klasean nago  
nire boligrafo berriarekin.  
Boligrafoak nire antza du,  
beltza da, nire ilea bezala,  
nire sudurra, berriz,  
kartaboiaren antzekoa da,  
handia eta zorrotza,  
betile luzeak eta bekain lodiak ditut,  
horregatik gaur goizean  
egundoko ezustekoa hartu dut  
nire aurpegia ispiluan ikustean,  
ez dudalako nire aurpegia gustuko.  
Nire gorputza luzea da,  
boligrafoa bezalakoa,  
baina ez naiz kexatzen,  
hankek ez didate ezertarako balio,  
korrika egiteko izan ezik.  
Nire izaera... ba ez dakit nolakoa den,  
hori nire lagunei galdetu beharko zeniekete.  
Riiiiiiiiiiiiing!!!! Aiba  
nitaz hitz egiten nengoela  
ordua pasa zait eta jolas ordua iritsi da,  
zer ondo  
ordu erdi dut nahi dudana egiteko,  
estutxe osoa mahaitik botata utzi

eta futboleant ibiltzera joan naiz;  
ez dut oso ondo pasatu  
zeren eta nagusiak oso onak dira  
eta ni, berriz, oso txarra.  
Txirrira jotzeko zorian dago, eta klaserantz joan naiz  
liburuak ateratzeko eta mahaia jasotzeko,  
gauza guztiak estutxean sartzen ari nintzela  
konturatu naiz boligrafo beltz berria falta dela  
eta mahaia azpian begiratu dut  
baina han ere ez dut aurkitu.  
Riiiiing!!!!  
Txirrinak jo du eta ez dut boligrafoa aurkitu,  
kezkatuta nago boligrafoa berria delako.  
Izaskun sartu da klasean  
nire Ingeleseko irakaslea baita,  
beti bezala zuzenketa batzuk egin ditugu,  
baina hitz bat zuzentzera nindoala  
konturatu naiz boligrafo gorri bat ere falta zaidala  
eta urdinarekin zuzendu behar izan dut.  
Hau zoritxarra nirea,  
bi boligrafo galdu ditut gaur.  
Hurrengo klasean lñigori boligrafo bat eskatu diot  
eta konturatu naiz hori nire boligrafoa zela,  
orduana perka bat jo diot  
eta beste boligrafoa ere itzuli dit,  
biok barrezka hasi gara  
eta biok kalera bota gaituzte.  
Beraz, badakizue:  
zerbait galtzen bazaizue,  
lñigoren estutxean begira ezazue.



## Miren Itziar Larramendi

### 123 Kasua, azken kasua

#### DBHko bigarren zikloa. Idazlan lehiaketan I. saria lortu du (narrazioa)

##### 2012ko azaroaren 24a...

20:20 Anoetako autobus geltokian jaitsi.

20:25 Denda batean sartu eta poltsa batekin irten.

20:47 Bilbora doan trenea hartu...

Hamar urte, hilabete bat, bederatzi egun eta oraindik ez dakit bera izan zen edo ez. Detektibe lanak egiten hasi nintzenetik ez zait horrelako gauzarik gertatu. Denbora luzez nabil kasu hau argitzeko asmoarekin, baina ezertxo ere ez! Hala ere, egunero irakurtzen dut egunero idatzitako guztia.

##### 2012ko azaroaren 25a: Gaur lanetik irten...

Eta litekeena da, nire bizitzako kasu garrantzitsuenetako bat izatea.

Hasieran ez nuen uste bera izan ahal zenik, baina orain... Gizon gaztea, 27 urte, txikitxo, betaurrekoduna eta "friki" samarra. Lehendik herrian pare bat aldiz ikusi nuen bere koadrilakoekin poteoan eta nahiko majoa zirudien.

Baina egun hartako egunkariko albistea irakurtzen dudan bakoitzean putaseme hori hiltzeko gogoia sartzen zait:

##### 2005eko urriaren 15a

###### 27 URTEKO EMAKUME BAT AGERTU DA MENDIAN HILIK

*Gaur goizeko 8:30ean, Izarraitzeko mendian, 27 urteko emakume bat agertu da hilik. Ez dakigu oraindik zer dela eta hil den, baina Ertzaintza oraindik kasua ikertzen dago. Emakumearen aurpegia oso txikituta dagoenez, ez dakigu nor den emakumea.*

Egun hura, nire bizitzako egunik txarrena izan zen. Eta zer egin behar nuen nik? Nire bizitzako neska hilik zegoen eta edozer egingo nuke zer gertatu zen jakiteko. Hilketak gertatu eta pare bat astera hasi nintzen kasua ikertzen. Izarraitzera joan nintzen, Ertzaintzarekin hitz egin nuen, baina ezin nuen aurrerapauso bat bera ere eman kasuarekin.

Iratiren bizitza oroitzen ibili nintzen, ea bazuen etsairik edo norbait gorrotoa zionik. Pare bat hilabete pasa ondoren 3 susmagari nituen; bi neska eta mutil bat. Bi neskek nire neskalagun ohiak ziren eta banekien Irati gorrotatzen zutela; baina egun hartan ez zeuden Euskal Herrian, Japonian baizik.

Eta bestetik, Josu. Ez nekien seguru zer izan zitekeen, baina susmoa nuen. Josu Iratiarekin ibili zen ikastolan 15 urterekin.

Oso lagun onak ziren, baina azkenean, ez dakit zer gertatu zen eta haserretu egin ziren. Herrian esaten denez, eta batez ere lagunek diotenez, Josu Iratitzaz maiteminduta zegoen eta berak kalabazak eman zizkion.

Hori oinarri bezala, kasua ikertzen hasi nintzen. Josu zen nuen susmagari bakarra eta, ondorioz, egunero bere atzetik ibiltzen nintzen esperantzarik gabe. Egun hura iritsi zen arte. Iratiren urtebetetze eguna, Josu herriko hilerria hurbildu zen. Nik atzetik jarraitu nion eta Iratiren hilobiraino joan zen. Bertan bakarrik entzun nuen, asko maite zuela, oso jatorra zela... eta berak ez zuela hori egin nahi! Bera ez bazen izan, zergatik esango zuen hori? Eta, gainera, bere urtebetetze egunean?

Orduan poliziarekin harremanetan jarri nintzen. Elkarrekin lanean ibili ondoren gauzak agertzen joan ziren. Ez du lekukorik gau hartan zer egin zuen esateko, mundu guztiak daki ez zutela elkarrekin hitz egiten eta gaizki konpontzen zirela txikitak gertatutakoarengatik... Poliziak esku hartu zuenetik, egun osoa galdeketa egiten zeuden, eta okerrera da neuri ere egiten zizkidatela.

Oso gaizki pasatzen nuen, ez nuen pentsatu nahi zenbat sufrutuko zuen Iratik hiltzean. Oso ongi konpontzen ginen txikitatik eta asko maite genuen elkar. Oraindik gogoan dut hitz egin genuen lehen aldia: Irati lagun batekin zihoan eta bat-batean eskaileretatik erori zen, justu nire aurrean. Jaikitzen lagundu nion eta gorri-gorri jarri zen. Hizketan hasi ginen eta beste egun baterako gelditu. Faltan botatzen ditut bere barreak, txantxak... eta ez dakit zer egingo nukeen hiltzailea aurrean edukiko banu. Askok sufritzen dut gauza hauetaz hitz egiten.

Egunak aurrera zihoazen, eta Josu zen susmagari bakarra. Poliziaren iritziz bera izan zen, baina ez zeuden seguru eta ezin zuten atxilotu. Baina egun batean galdeketa egiten ari ziren bitartean, Josu txoro bat bezala oihukatzen hasi zen. Bera izan zela eta atxilotzeko, gauza baten truke: atxilotu baino lehenago nirekin hitz egin nahi zuela esan zuen. Nik baietz esan nion, eta atxilotuko zuten egunean elkarrekin hitz egin genuen.

Ordu oso bat egon ginen hitz egiten, Iratitzaz hitz egiten. Begietara ongi begiratuta egia zioela zirudien. Eta hauek izan ziren bere azkeneko hitzak:

-Badakizu ni ez nintzela izan!! Irati maite nuen eta ez nioke inoiz minik egingo!! Zuk ere badakizu nolakoa zen Leire eta ez lida-keela inoiz ezer ere egingo. Gezurra da herrian diotena, ni ez nengoen Iratitzaz maiteminduta, berak beste mutil bat zuen buruan!

Gaur, 2015eko abuztuaren 5a, Josuren aurkako auzia hasten da. Ez dakit erruduna den edo ez. Berak, Irati maite zuela dio eta sekula ez liokeela horrelako gauzarik egingo. Uste dut ez dudala inoiz jakingo zergatik haserretu ziren elkarren artean. Jada ordua da, barrura noa. Ea nola amaitzen den nire azkeneko kasua. Kasu hau bukatu eta gero, ez baitut gogo handirik horrelako gehiago egiteko.

Maria  
Zubia



## Bai ama, bai laguna

DBHko bigarren zikloa. Idazlan lehiaketan  
I. saria lortu du (poesia)

Jaiotakoan ikusitako lehen pertsonak,  
eskaintzen digu askotan behar duguna:  
eguneroko janaria, heziketa,  
baita maitasuna.

Bera da borrokatuz dena lortu ahal dela  
erakutsi diguna.

Txikitatik aurrera atera gaituena dugu  
bai ama, bai laguna.

Handituz goazen heinean,  
edozerk du zailtasuna.

Batzuek ulergaitz badute ere,  
ez da erraza tokatu zaiguna.

Edozerri irribarrea ateraz,  
konponbidea bilatzea da lehentasuna  
eta helduko da zugatik egindakoa eskertuz  
aurrera egin eta sendatzeko eguna.

Hemen gaudenoi eskutik helduz  
hurrengo izango da poztasuna,  
baina bakarrik lortzen saiatuz, alboan ez zaitudalako  
esperantza da galduarazten didazuna.

Zaila dela badakigu denok,  
baina ez da ezinezkoa,  
hau da denbora honetan  
bizitzak irakatsitakoa.

Honek ematen digu  
inork espero ez duen malkoa.  
Momentu txar guztietaz pentsatuz,  
eroritakoa.

Baina negarrei eta momentu txar guztiei  
irribarrea ateratzea da gakoa.  
Honek indartsu egiten gaitu  
ahaztuz pasatakoa.

Esperantza dut bai,  
zu alboan edukitzekoa.  
Badakit denborarekin  
izango dudala amestutakoa  
eta benetan eskertzen dizut, ama,  
nigatik egindakoa.

## Aisialdian ere lan hezitzailea egitea posible delako

Uda iritsi da! Eguraldi ona, herrietako jaiak eta ondo pasatzeko planak ere iritsi dira Gaztelekura! Udan egin ditugun ekintzak argazkien bitartez azaldu ditugu. Baina ez pentsa Gaztelekuan dena festa denik! Ez pentsa! Gure lanaren helburuetako bat GAZTEEKIN LAN HEZITZAILEA EGITEA DA: gazteek egin nahi dituzten irteerak beraiekin antolatu, jarraitu behar diren pausoak banan-banan eman, erabakiak hartzeko taldekideen artean negoziatu eta inizatibak bultzatu, besteak beste. Dinamika horren barruan, aurten lehen aldiz, San Rokeetako jolasak prestatzen aritu gara: showa, balsak, bertsoak, karaokea...

Ondo ondo pasa jaietan eta irailera arte!

*Debako Gaztelekua*



**PALA TXAPELKETA**

*"hasieran pala txapelketa earra in gndun!!!"*



**DONOSTI CUP-neskak**

*"athletico de Madrid-en kontra jolastu eta irabazi in gndun! ezeeetz, broma dala! galdu in gndun bña oso ondo jokau ta oso ondo pasau gnduun!!!"*



**PAINTBALL**

*"tiruak bota ta bota, talde marroia pinturaz blai geratu zan, jejeje!!"*



**DONOSTI CUP-mutilak**

*"gustatzen bazaizu, holako sperientziaik ez dzu eukiko bste inun!!"*



**HUESCA**

*"urt osuan lan da lan ibili ta geo irabazi gndun ta huescara jun giñan!!"*



**ARCACHON**

*"bidai luzia izn arren sper ondo pasa gndun!!!"*



**ESKUALDEKO FUTBOL PARTIDA**

*"best herrietakoekin batera txapelketa in gndun!!"*



**SANTA KLARA UHARTEA**

*"Sper politxa da ta medusak toreatzn jardun gndun!!!"*

## Abuztuak 14

**18:00:** Kanpai errepika eta udaletxeko balkoitik suzuria botako da San Roke festak iragarri. Ondoren, Debako Martxaren soinuarekin zapi gorria jarriko zaio San Rokeri.

**Jarraian:** Kalejira, banda, txistulari eta Lizarrako Gaiteroekin (erraldi eta buruhandien laguntzaz).

**19:30:** Udaltzako elizara abiatuko da Alkate Soinu entzunez. Gure Kai Dantza Taldeak Erreberentzia eta Ezpata Dantza dantzatuko du. Ondoren, Hilarion Eslavaren salbea abestuko du Aitzuri Abesbatzak.

**22:30:** Danborrada Ozio-Bide Elkartearen eskutik.

**00:30:** Kontzertua: **Egurra Ta Kitto**. Ondoren, erromeria **Karma** taldearekin.

## Abuztuak 15

### Umeen Eguna

### Mozorro Festa

**09:00:** Diana, Banda Gaztearekin eta Lizarrako Gaiteroekin.



**10:00:** Entzierroa, umeentzako.

**11:30:** Mozorro kontzentrazioa Luzaro eskolan. San Roke txiki atera eta bertsoak kantatuko dira. San Roke dantza ere dantzatuko da. Ondoren, desfilea plaza zaharretik zezen plazara. Danborrada, dantzariak eta erraldoiak.

**12:30:** Jaialdia: danborrada, herri kirolak, dantzak eta zezenak.

**13:00:** Gazteak kalera.

**14:00:** Kalejiran karpara.

**14:30:** Herri bazkaria (karpan).

**17:30:** Kalejira, karpatik herrira.

**18:00:** Irrien Lagunak, Simon Berasaluze plazan.

**18:00:** Jokuak eta show lehiaketa, zezen plazan.

**20:00:** Umeen pilota partidak.

**20:30:** Kontzertua: **A santo de qué** eta **Tinta Roja**.

**00:00:** Kontzertua: **Strikers** eta **Secuestro Express**.

## Abuztuak 16,

### San Roke Eguna

**07:00:** Diana, Musika Banda eta Lizarrako Gaiteroekin.

**08:00:** Entzierroa. Ondoren,

enbolatuak (Arrizabalaga anaiak).

**09:30:** Gure Kai Taldekoen Ezpatadantza eta Agurra plaza zaharrea. Jarraian, Udaltzako ermitara igoko da prozesioan eta Meza Nagusia izango da. Ondoren, Larrain Dantza egingo da plaza zaharrea (Lizarrako Gaiteroekin, erraldoiekin eta buruhandiekin).

**12:30:** Aureskua Foruen Plazan, Gure Kai Dantza Taldearen eskutik. Ondoren, enbolatuak

(Arrizabalaga anaiak).

**18:00:**

Haurrentzako antzerkia (Bapatean Zirko Taldearen "Taberna" antzezlaria), Simon Berasaluze plazan.

**18:00:** Bertsolariak karpan.

**18:00:** Zezenketa, Tamameseko Puerto de San Lorenzo (Salamanca) ganadutegiaren eskutik.

Ondoren, kalejira Musika Banda eta Lizarrako Gaiteroekin.

**23:30:** Sufestak hondartzan (Pirotecnia Zaragozana).

**00:00:** Kontzertua: **Napoka Band** eta **Mikel Urdangarin**.



## Abuztuak 17,

### Marinel Eguna

**08:30:** Kardantxulo Kantua. Irteera plaza zaharretik.

**10:30:** Jorrai Dantza herriko kaleetan, Gure Kai taldearen eta Kalez Kale Txistularien eskutik.

**11:30:** Diana, Oria txaranga eta Lizarrako Gaiteroekin.

**12:00:** Entzierroa. Ondoren, enbolatuak.

**15:00:** Bazkari herrikoia karpan.

**17:30:** Kukaña eta baltsa jai-tsiera, portuan.

**18:00:** Erromeria kaleetan zehar: bertsolariak (Alaia Martin eta Beñat Gaztelumendi), Zazpitan Lehena (jotari taldea), Txanbezpel Taldea eta irrirtzi lehiaketa.

**22:30:** Kontzertua: **Sarkor**.

**00:00:** Larrain Dantza plaza zaharrea.

**00:30:** Kontzertua: **Hurmurao**. Ondoren, **Honat** (Amaiur erromeria).

## Abuztuak 18,

### Kanbo Eguna

**07:00:** Diana, Lizarrako Gaiteroekin.

**08:00:** Entzierroa. Ondoren, enbolatuak (Arrizabalaga anaiak).

**10:00:** Artisau Feriaren hasiera.



# ROKEAK 2012

**11:00:** Ongietorria Kanboko ordezkariari, trikitilariekin. Ondoren, Kanboko Jeikadi Dantza Taldea kaleetan zehar.

**11:00:** Jubilatuen elkartean udalak eskainitako hamai-ketakoa hirugarren adinekoentzat. Trikitilariak bertan izango dira, eta bitartean arratsaldeko zezenketarako bederatzi sarrera bikoitz zozketatuko dira.

**11:30:** Kalejira txistulariekin.

**12:30:** Txaranga lehiaketa.

**18:00:** Debako eta Kanboko gazteen arteko Olinpiadak, Simon Berasaluze plazan.

**18:00:** Zezenketa: Tamameseko Puerto de San Lorenzo (Salamanca) ganadutegiaren eskutik.

**19:30:** Elektrotxaranga.

**19:30:** Pilota partidak, Aldats pilotalekuan.

**21:30:** Kontzertua: **Betagarri, Vendetta, Tximeleta** eta **La Banda del Destierro**.

## Abuztuak 19

**07:00:** Diana, Musika Banda eta Lizarrako Gaiteroekin.

**08:00:** Entzierroa. Ondoren, enbolatuak (Arrizabalaga anaiak).




**12:30:** Enbolatuak, plazan.

**12:30:** Txaranga lehiaketa.

**18:00:** Karaokea haurrentzat, karpan.

**18:00:** Zezenketa, Tamameseko Puerto de San Lorenzo (Salamanca) ganadutegiaren eskutik. Ondoren, Erraldioen Agurra plaza zaharrian, Debako Banda eta Lizarrako Gaiteroekin.

**00:00:** San Roke Festen amaiera, plaza zaharrian. Ondoren, Roke Deunaren irudiari ohiturazko zapi gorria kenduko zaio.



*Aurtengo jaietako kartela duzue goikoa. Ana Salegirena da.*

San Rokeak, gure herriko festak, hemen dira aurtenera; oso urruti ziruditen, baina denborak ez du barkatzen, eta poliki-poliki bere bidea egiten du.

Uda gori-gorian dagoenean izaten dira gure jaiak eta hauek denontzat hain egun alaiak eta ederrak izateko aspaldi hasi zen lanean Jai Batzordea. Aurtenera, bereziki osaketa anitza izatea nahi izan dugu, parte-hartzailea eta, horrela, bertan herriko talde kulturelek eta gazte mugimenduak zer esan handia izan dute.

Jakina da horrelakoetan, jende asko biltzen denean, eta bakoitzak bere ekarpenak egin nahi dituztenean, hori baita benetan aberasten duena, zenbait momentutan desadostasunak izaten direla; hala ere, Jai Batzorde honen erronka izan da horiek guztiak gainditu eta jai programa aurrera ateratzea.

Guztion nahia da jai alaiak eta koloretsuak bizitzea; eta, nola ez, guztiok (haur, gazte, nagusi, emakume zein gizon) nor bere erara gozatzeko aukera izango dugu. Izan ere, ez dugu ahaztu behar jai herrikoiak nahi baditugu herritarren ekarpenak, iritziak ezinbestekoak direla urtetik urtera festa hobek izateko. Beraz, badakizue!!!

Jaiak guztiontzako izateko, denok jokatu behar dugu arduraz; entzierroekin, enbolatuekin, eta beste ekimen guztiekin gozatzeko modu asko dago, bakoitzak bere erara. Dena den, beharra izanez gero, ez ahaztu Udala herritarrei laguntza emateko dagoela.

Beraz, badakizue, denok kalera zapi gorriarekin, herria girotu eta alaitzea denon esku dago eta! Izan ere, jakin badakigu, inguruko herrietako jendea erakartzeko modurik hobereana horixe dela.

**Festetan, gozatu eta goxatu!!**

*Jai Batzordea*



Agenda

Abuztuaren 14tik 19ra

-Debako San Roke jaiak. Egitaraua aldizkari honetako 16. eta 17. orrialdeetan duzue. Eta hemen behean duzue kontzertuei dagokien kartel berezia.

**SAN ROKE JAIK**  
2012 DEBA

**KONTZERTU AGENDA**

ABUZTUAK 14, Asteartea  
00.15etan  
**EGURRA TA KITTO** **KARMA**  
erromeria

ABUZTUAK 15, Asteazkena  
20.30etan 00.00etan  
**Tinta Roja** **Strikers**

ABUZTUAK 16, Osteguna  
00.00etan  
**A Santo de Qué** **SECUESTRO EXPRESS**

ABUZTUAK 17, Ostirala  
22.30etan  
**NAPOKA BAND** **Mikel URDANGARIN**

ABUZTUAK 18, Larunbata  
21.30etan  
**SARKOR** **HURMURAO HONAT** **Amaluz erromeria**

**betagarri**  
**VENDETTA** **WAVELETA**

Abuztuak 31, ostirala

-19:30. **Azken ostirala.** Preso eta iheslari politikoen aldeko mobilizazioa, Herrira mugimenduak deituta. Foruen plazan.

Irailak 8, larunbata

-Margo lehiaketa. Udalak eta Haitz Haundik antolatuta.

Irailak 10-11/15-16

-Lasturrek **San Nikolas jaiak** hartuko ditu. Egitarau berezia antolatuko dute.

EUSKAL JAIA 2012



**IRAILAK 29, LARUNBATA:**  
Egun osoko egitaraua izango da: dantzak, musika, marmitako lehiaketa, herri bazkaria, erromeria... Urtero legez, base-ritarrez jantzi eta euskal giroan murgiltzeko deia egingo zaie herritarrei. Beraz, adi! Guztion laguntza eta parte-hartzea ezinbestekoa izango da eta!

XXIX. UDAKO MUSIKALDIA  
SANTA MARIA ELIZAKO KLAUSTROAN

-Abuztuak 23, osteguna: Isasi Laukotea.

-Abuztuak 30, osteguna: Secretvm.

\*Oharra: Musikaldiaren baitan antolatutako emanaldi guztiak klastroan burutuko dira, eta iluntzeko 20:30ean emango zaie hasiera.



Udako ordutegia liburutegian

-Ostolaza Udal Liburutegiak **udako ordutegi berezia** izango du irailaren 10a arte.  
\*Liburutegi orokorra: astelehenetik ostirala bitarte, 9:30etik 14:00etara izango da zabalik. Haur liburutegia, berriz, 10:30etik 13:00ak arte.

Lehiaketa

-Zuhatza Euskara Elkarteak **udako postal lehiaketa** antolatu du aurten ere. Bi lagunentzako afari goxo bat dago jokoan! Edonon izanda ere euskaraz idaztea posible delako, animatu parte hartzera!  
Postalak irailaren 14a baino lehen bidali beharko dira. Lehiaketaren oinarriak eta informazio gehiago: 943 19 1383 telefono zenbakian.

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: TEL. 669 262 201  
BURGOA ZUAZO: TEL. 667 338 890



22:00etatik 09:00etara, Elgoibarren botika bat **guardian**.  
09:00etatik 22:00etara, Debako botikak itxita dauden bitartean, aste osoan zehar, **guardiako farmazia** bat Deban edo Mutrikan.

Larunbat goizetan beti bat irekita:  
9:30 - 13:30

OHARRA:

**Gabeko farmazia zerbitzua Elgoibarrera**  
Deba, Mendaro, Mutriku eta Soraluzeko zaintzako farmazia Elgoibarren zentralizatuko da aurten. Gipuzkoako Botiken Eskola Ofizialak hala eskatuta eta Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak aginduta egin da aldaketa. Horrela, gaueko 22:00etatik goizeko 9:00etara farmaziara jo behar dutenek Elgoibarrera joan beharko dute.

Seven Clovers  
Irish pub

Gozatu gure garagardoa  
Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"


Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA  
TEL. 943 19 21 92

MULTIÓPTICAS  
**Uzuri**

ZURE  
ENTZUMENA  
ZAINTZEN



**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel.-faxa: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
mikeliturgintza@euskalnet.net  
www.mikeliturgintza.com

**A D**

**ASESORIA DEBA C.B.**  
JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617  
Eduarne: 669 895 619

Tel.: 943 192 127  
HONDARTZA, 2 - BEHEA Fax: 943 192 482  
20820 DEBA (GIPUZKOA) ase.deba@teleline.es

**atari**  
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURAK, ABOKATUA  
Lersundi 1. behea 20820 - DEBA  
Tel.: 943192263  
www.atarideba.com

**Lizaso**  
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21  
Tlfnoa: 943 19 27 29

**ITXAS GAIN**  
Taberna  
**ITXAS GAIN**

Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA

**oskarbi**

Menua  
Ogitartekoak  
Plater Konbinatuak

Lersundi kalea, 9  
Tel. 943 029 488 - 618 644 014  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**IGARZA**  
TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197

**IZENBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

**GENOVEVA**  
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818

**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

**MAZZANTINI**  
TABERNA

Sokagiu, 7 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel. 943 192 422

**BOKATAK - PINTXOAK**  
ETA GIRO ONA

**JLE**

Informatika: Treneria informatikoa  
Elektronika: Osagai elektronikak

Maxe kalea, 7 - Behea  
20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83  
Faxa: 943 19 18 36  
Mugikorra: 686 938 601

e-mail: jle@informatikajleelektronika.e.telefonica.net

**RAIKETAK S.L.**  
**SAGARMIÑA**

Hondartza, 3-4 bajo • Apartado, 31  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel./Fax: 943 192 249  
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940  
sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com

# SAN ROKE JAI ZORIONTSUAK!

**Nik maite  
dud**  
**euskara**

**2012-2013 ikasturtea**

**Matrikula zabalik  
irailaren 3tik 28ra.**



**CURSO 2012 • 2013 IKASTURTEA**

**Matrikula zabalik • Matrícula abierta**

**UDAL EUSKALTEGIAK**

**DEBABA UDAL EUSKALTEGIA**

Ifar kalea, 12

Telefonoa: 943 19 22 36

e-posta: [debabe.deba@telefonica.net](mailto:debabe.deba@telefonica.net)